

## OHARRA: HAUTAKETA-PROZESUAREN ETA ZERRENDEN PUBLIZITATEA

Osakidetza Zuzendaritzak, 2016-17ko Enplegu Publikoko Eskaintzan parte hartu zuten pertsonen datuak babesteko, bereizitako bi eremu dituen –eremu publikoa eta eremu pribatua- publizitate-sistema bat ezartzen erabaki du.

Eremu publikoan, hautaketa prozesuaren garapenean argitaratzen diren ebazpenak ikusiko dira. Eremu pribatuan, ebazpenez gain, izaera pertsonaleko informazioa jasotzen duten eranskinak ikusiko dira. Eremu pribatuan sartzeko, dagokion kategoriako hautagaia izatea beharrezkoa izango da.

2019ko uztailaren 29tik, astelehenetik, aurrera, kategoria bakoitzeko zerrendak ikusteko, aurretik identifikatzea eta kautotzea beharrezkoa izango da, Osakidetza 2016-17ko EPEren web guneko “Kontsulta pertsonalizatuak” atalean sartuz.

Sartzeko pasahitza gogoratzen ez baduzu, honela berreskuratu dezakezu:

- a) Osakidetza informazio-sistemara sartzeko pasahitza berreskuratzeko (Osakidetza lan egin duten edo lan egiten duten pertsonak): telefonora deitu dezakete 945006464.
- b) Beste pasahitzen kasuan: eskabide-orrian bertan pasahitza bidaltzea eska dezakezu, aplikazioak sarbide-kontrolan pasahitza eskatzen dizunean. Kasu horretan, eskabidea egitean eman zenuen helbide elektronikora bidaliko zaizu pasahitza.

Ezingo bazenu pasahitza berreskuratu: harremanetan jarri ahal zara 945006464 telefonoan eta bertan pasahitza nola eskatu eta nola lortu dezakezun azalduko dizute, edo, bestela, [cauope@osakidetza.eus](mailto:cauope@osakidetza.eus) helbide elektronikoaren bidez, zure NANren eskaneatutako kopia bidaliz.